

Garraioen euskal kontseilua sortzeko eskatu du UGT sindikatuak

DONOSTIA

Garraioen Euskal Kontseilua sortzeko eskatu die Euskadiko UGT sindikatuko Garraio Federazioak Instituzio eta alderdi politikoei. Euskal Autonomi Elkarte (EAE) sindikaturik garrantzitsuenean parte hartuko lukete Garraioen Euskal Kontseiluan, Katalunia eta Galizian gertatzen den antzera.

UGTren ustez, garraio arloan burutzen diren ekintza guztiak erabiltzearen beharrak betetzen dituztela bermatuko luke garraioen euskal kontseilua. Errepideetan eta trenez egiten den garraio publikoan sindikatu sozialistak egindako azterketaren arabera, zerbitzu honek ez ditu EAEko erabiltzaileen beharrak betetzen. 'UGT informa' aldizkarian plazaratu ditu UGTk datuok. Garraio Publikoaren Plan Orokorra eztabaidatu beharra dagoela dio, era berean, sindikatuak.


Garraioen arloko konpetentziak Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu zituenetik hamaika urte pasa direla eta oraindik ez duela arlo honetako politikarik martxan jarri gogorarazten du UGTk. Bestalde, garraio arloan orain arte burututako guztia koordinaziorik gabe

egin dela dio eta adibide gisa Bilboko metroko lanak jartzen ditu: Bizkaiko Kotsorazioa, Imebisa elkarte eta Eusko Trenbideak/FVen Administrazio Kontseilua erabiliz Bilboko metroaren gestio elkartea sortu dela aipatu.

'PORTEEN KARTAREN' APLIKAZIOA Josu Bergara Eusko Jaurlaritzako Garraio eta

Herrilan Kontseilariak, bestalde, Madril en egiten ari den Garraioaren VI. Konferentzia Nazionalen parte hartu zuen joan zen asteazkenean. Elkarre autonomiko zein Madriloko Gobernu arduradunek hartu zuten parte bertan.

'Porteen deklarazioa' dela eta, Euskal Autonomi Elkarre konpetentziei dagokienez dituen berezitasunak aipatu zituen Bergarak. Berezitasun horiei esker, hiru lurralde historikoetako Diputazioei dagokiei 'porteen karten' kontrola, inspektzioa eta banaketa. EAEko lurraldean 'porteen deklarazioa' martxan Gasteizko Administrazioak jarri behar duela argitu zuen Bergarak. Errepideen bidez egiten den garraioaren datu zehatzak jakitea ahalbidetzen dio Administrazioari 'porteen kartak', eta legez kanpoko garraio-lariak desagertaraziko ditu.

 XIX. Euskal Unibertsitatea

Aurtengo edizioaren balantzea ona izan da sailburuentzat


Defizita milioi bat eta berrehun mila pezetakoa izan da

Atzo amaitu zen UEUko hemeretzigarren edizioa, amaiera-hitzaldia eta sailburuek egin zuten balantzearekin. Iñaki Irazabalbeitia zuzendaria pozik azaldu zen lau urteotan egin lanarekin, eta bere ordezkoa izango den Kepa Altonaga aurkeztu zuen Larraonako areto nagusian egin zen ekitaldian.

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Bertan edizio honen datuak eman zituzten aditzera arduradunek, eta hasieran iragarri zen bezala, azken urteotan jende gehien bildu duena izan da aurtengoa, 643 lagunek hartu bait dute parte. Bi astetan mintegi, hitzaldi eta mahainguru franko egin dira bertan, eta sailburuek egin balantzea positiboa izan zen oro har, aldatzeko zenbait neurri proposatu baziren ere.

Neurri hauen artean, horrela, sailen arteko trukatearen beharra azpimarratu zuen Arte eta Komunikazio sailburua, «praktikak eta partaidetza bultzatzeko». Musika arlo-



Aurtengo edizioaren balantze positiboa egin du UEUk.

an, kontserbatokietan ikastaroek zuten eragina eskasa azaldu zuen, eta informazioa hobeto bideratzaren alde agertu zen. Iñaki Marko Giza eta Gizarte-Zientziak sailburua ere oso balantze positiboa egin zuen, eta Zuzenbidean, kasu, urte osoan aritzeko lan talde bat osatuko dela azaldu zuen. Soziologian, berriz, EHUtik kanpoko beste irakasleak ekarri beharra azaldu zuten ikasleek.

Hizkuntzalaritza sailean, partai-

deen arteko desorekak nabarmendu zituen Erramun Osa sailburua, eta aurrerantz bi mail ezberdinak paratu beharra azaldu zuen. Natur Zientziak sailean, bestalde, informazio handiagoa zabaldu behar dela aipatu zuen. Halaber, datu ekonomikoak aurkeztu ziren atzoko biltzarrean. Aurten aurrekontua ia hemeretzi milioi pezetakoa izan da, eta defizita 1.200.000 pezetakoa izan da azkenean.

HILDAKOAK



BIZKAIA

BILBO

Jesus Villalonga Txarramendieta, 35 urte.

Pedro Moreno Arnaiz, 86 urte.

Gonzalo Villanueva Ceballos, 53 urte.

Elena Mayordomo Lopez, 86 urte.

Concha De Llona y Mendieta, 86 urte.

BASAURI

Jose Lekue Ibarretxe, 72 urte.

ERANDIO

Manuel Marquinez Vallejo, 74 urte.

KORTEZUBI

Vicente Odriozola Jaio, 67 urte.

SOPUERTA

Seberiano Landaburu Velez, 71 urte.

URDULIZ

Maria Elisa Amondarain Amondarain, 45 urte.

GIPUZKOA

DONOSTIA

Josefina Martinez de Retuerto, 86 urte.

ALTZO

Martin Aierbe Mendizabal, 82 urte.

ERRETERIA

Tomasa Alonso Gonzalez, 86 urte.

Maria Jesus Galarraga Zapirain, 48 urte.

IRUN

Jose Rezola Jauregi, 65 urte.

ONATI

Ambrosio Madina Ugarte, 85 urte.

ORDIZIA

Aquilina Rastrilla Frias, 64 urte.

SEGURA

Pedro Ugalde Tolosa, 84 urte.

Ildefonso Telleria Ugartemendia, 85 urte.

URNIETA

Manuel Arruti Ulanga, 32 urte.

Andoni Ganboa Goikoetxea, 18 urte.

ARABA

GASTEIZ

Luisa Celaa La Fuente, 81 urte.

Maria Ruiz de Arizabaleta Arrondo, 79 urte.

NAFARROA

IRUÑEA

Jesus Martinez Vinuesa, 63 urte.

Felisa Tolosana Ezker, 75 urte.

AGOITZ

Felipa Adot, 57 urte.

ARRUAZU

Aitor Obejero Ganboa, 18 urte.

AZKOEIN

Pilar Perez Cid, 73 urte.

EIAURRIETA

Rafael Krutzaga Esarte, 89 urte.

ETSAIN

Catalina Idareta Barberia, 67 urte.

ITZALTZU

Juan Bezunartea Siron, 87 urte.

LIZARRA

Manuel Gomez Soto, 78 urte.

MELIDA

Luisa Jaso Murugarren.

NABATZ

Maria Irangi Redin, 82 urte.

NOAIN

Amparo Santos Alventosa, 51 urte.

SAN MARTIN UNX

Josefina Aldunate Valencia, 66 urte.

ZARRAKAZTELU

Aurelio Irigoien Remon, 69 urte.

LAPURDI

BAIONA

Asuncion Lafitte, 87 urte.

ANGELU

Gabrielle Cassoulet, 83 urte.

DONIBANE LOHIZUNE

Renee Ilundain, 82 urte.


HENDAIA

Jacques Cohy, 79 urte.

ZUBEROA

IDAUIE

Felix Garcia, 88 urte.



Udako Ikastaroak

Gerra osteko ordenu berria aztertuko dute biharko ihardunaldian

DONOSTIA

Ingurugiroaren zainketaren esku-bideari buruzko ikastaroa amaitu zen atzo Arrasate kaleko Kultur Aretoan. Jean du Bois de Gaudusson Bordelako Unibertsitateko irakasleak lehen hitzaldia eman zuen goizean. Bihar Golkoko gerraren ondoren sortu den 'nazioarteko ordenu berriari' buruzko ikastaroa hasiko da Udako Ikastaroetan.

Serge Soumastre lehenaren erki-deak, aldiz, lege atalari ekin zion. Europako Komunitatearen Zuzenbidea eta ingurugiroa erlazioan ziztuen unibertsitate bereko irakasleak. Bi adituon hitzaldiek amaiera eman zitien hilaren 24ean hasitako eskola sorta honi.

Loiolako Inaziori dedikatutako kursoaren bigarren ihardunaldia sailburuek euskaldun garaikideei buruzkoa izan zen. Jose Luis Orellak, ikastaro honen zuzendaria Loiolako Inazio eta Nafarroako Xabier gonbaratu zituen «Gipuzkoa versus Nafarroa» izeneko hitzaldiaz, sasoi hartan herrialde bien artean izaniko lehia gogoraraziz.

Bihar astelehena beste ikastaro bat hasiko da Donostian, «Berlin eta Bagdad»-ekoaren ondoren: Hiru-

garren Mundua nazioarteko ekonomia berrian» deritzana. Ekonomia eta soziologia adituek gai hau jorratuko dute Golkoko gerra eta ekialdeko sistemen erorketaren ondoren aldarrikatu den 'ordenu berria' aztertzeko.

Robert Sutcliffe 'Hirugarren Munduko krisiaren areagotzea 90etan' hitzaldian mintzatuko da lehendabiziko eskolan. Koldobika Unzetak segitu egingo dio gai berari garatu gabeko herrietako egoerari helduz.

Ondoko eskola ere bitan banatuko da eta honetan Fred Halliday eta Maxine Molineaux adituek ihardungo dute. Hitzaldi bikoitzak '90 urteetako nazioarteko ordenua' izena edukiko du eta aurrekoan bezala Printzea Pabilioian gertatuko da.

Bestalde, Loiolako Inaziori buruzko ikastaroak jarraipena izango du bihar. Herenegun hasitako ikastaro honetan Iñaki Beti, Jose Luis Orella zuzendaria eta Jose Iturmendi arituko dira. Hitzaldioi Inazioaren garaia aztertuko dute baina era paralelo baten, Jesus Lagundiaren sortzailearen garaikideen bizitzez, alegia. Francisco de Vitoria, Johannes de Antxieta izango dira, besteak beste, analisi historiko honen ardatzak.

Nazioarteko turismoa egiten duten enpresak salatu dituzte

L.K.G. / GASTEIZ

Nazioarteko turismoaren elkartruketa diharduten Time Leader eta Mareverde enpresak salatu ditu Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasunak (EHKB), «kontratuak ez betetzeagatik». Iazko urrian Time Leader enpresak turismoa eskaintza egin zuen «mundu osoan, erretserbak bermatuta, oportetaz nonnahi gozatzeko malgutasun osoz».

EHKB-k dioenez, «Angelino Alejandro eta Rosa María Pérez bezereok urriaren 13an aipatu entitateekin kontratu sinatu zuten eta prezio osoa zen 967.500 pezetatik 100.000 eman zituzten orduan». Elkarrekin esan duenez, lehen zatia ordaindu ondoren, oportetako data eta tokiak berronetsi nahi izan zituzten, «baina enpresaren afiliazio baldintzen arabera, erabateko diskrezionalitate dutela eskaerak onarpenari zain elkartrukeen programa eta baiztapenei buruz, hartutakoaren izaera desnaturalizatzen duena».